Informa el Sr. Alcalde de que entre los días 12 y 19 de septiembre, tuvo lugar la experiencia piloto sobre la observación de aves migratorias en el paso de Lindustrona, dando unos resultados muy satisfactorios y estando a la espera de una memoria. Así mismo informa de las gestiones realizadas en orden a crear un observatorio de aves migratorias en Burguete

El Ayuntamiento se da por enterado

Convocatoria de Lista de Sustituciones.

Informa el Sr. Alcalde de que los Ayuntamientos de Erro Burguete y Roncesvalles van a crear una lista para sustitución de auxiliares administrativos por motivo de bajas, vacaciones ,ayuda puntual en momentos de mucho trabajo y similares.

El Ayuntamiento se da por enterado

Venta de aprovechamiento forestal

Informa el Sr. Alcalde de que ha llegado a un acuerdo con maderas Genaro Cantero para venderle el aprovechamiento forestal pendiente de Antsobi en la cantidad de 25.000 € previa consulta con D Fermín Izco técnico que asesora al Ayuntamiento y Dña M^a Eugenia Hernando Ingeniero del Gobierno de Navarra

El Ayuntamiento se da por enterado aprobando la actuación del Sr. Alcalde

Y sin más asuntos que tratar se levantó la sesión de lo que doy fe

Auritzen, 2009ko urriaren 15ean, 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: M^a Roncesvalles Azanza Burusco a., Alejandro Othegui Echeverria j., M^a Aranzazu Oyarbide Lapazaran a., Juan Manuel Azanza Burusco j., Iker Oroz Gárate eta Ignacio Irigaray Gil j. Bilkuraburu, alkatea, Jose Irigaray Gil j., izan zen eta idazkaria Pedro María Cenoz Iragui j.

1.- 2009ko ABUZTUAREN 6an EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA

Udalak erabaki du aho batez 2009ko abuztuaren 6an egindako bilkuraren akta onestea.

2.- 2009ko MAIATZAREN 29tik UZTAILAREN 30a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENAK

Alkateak 2009ko maiatzaren 29tik uztailaren 30a arte eman dituen ebazpenei buruzko informazioa eman du. Ebazpen horiek bilkuraren espedientean daude. Udala jakinaren gainean gelditu da.

3.- ARKAITZ KARRIKA IRIBARREN JK. IPETEAN DUEN LURZATIAN (I-9 LURZATIA) ERAIKIN BAT EGITEKO. LURZATI HORI UDALAK SALDU ZION 2006KO IRAILAREN 26AN HARTUTAKO ERABAKIAREN BIDEZ. LURZATI HORI UDALARI ITZULTZEA.

Alkateak jakinarazi du interesatuak eskatu diola gaia abenduko bilkurarako uztea, Kanaleburuan lurzati bat erosteko aukera aztertzen ari baita. Udalak erabaki du gaiaren gaineko erbakirik ez hartzea hurrengo bilkura arte.

4.- JOSÉ JOAQUÍN CILVETI PUYADA JK. LURZATIEN BATERAKUNTZAREN PROZESUAN LURZATIAK TRUKATZEKO EGIN DUEN ESKAERA.

Alkateak jakinarazi du eskaerak bi aukera proposatzen dituela:

Lehenengoa.- Lurzatiien Baterakuntzan Cilveti jaunari Zokoetan eman zaion lurzattia gaurregun Antsobin erabiltzen duen bazkalekura pasatzea.

Bigarrena.- Udalari eman zaion Antsobiko 64 lurzattia berari Zokoetan emandakoaren zati batekin trukatzea.

Modu berean aipatu du lehenengo aukera ez zaiola onargarria iruditzen gainontzeko jabeekiko konparaziozko bidegabekeria iruditzen zaiolako eta herri lurren zatiketa ekarriko lukeelako eta hori ez litzatekela ona izango herri lurrentzako, eta hori ez baita Lurzatiien Baterakuntzaren helburua eta, hortaz, proposamena atzera botatzea proposatu du.

Udalak erabaki du aho batez lehenengo aukera baztertzea.

Bigarrenari dagokionez jakinarazi du

Bigarren proposamenari dagokionez, aipatu du jakin duela 1 LAPean aurreikusita dagoela salgaien nazioarteko garraioaren gune logistikoa egitea Antsobiko 77. lurzattian. Udala gune horren aurkako alegazioa aurkeztu duela baina uste duela hori egingo balitz onurarik handiena atera beharko litzatekeela bizilagunentzako, are gehiago kontuan hartuz herriko lurra izan dela; horiek horrela, Udalak ahoz jakinarazi dio Nafarroako Gobernuko nekazal azpiegituren zerbitzuari 77. lurzattia berea izaten jarraitzea nahi duela eta 17. lurzattia (seigarren kategoriakoa kenduta) eta 64. lurzattia masa komunera pasatzea.

Udalak erabaki du aho batez:

1.- Nafarroako Gobernuko Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuari eskatzea 77. lurzattia Udalaren izaten jarraitzea eta 17. (seigarren kategoriakoa kenduta) eta 64.

lurzatiakin bere ustez modurik egokienean jardutea, masa komuna kontsideratuz.
2.- Adieraztea Udala prest dagoela Jose Joaquin Cilveti Puyada jk. ondareko 64. lurzatiari buruz proposatu duen aldaketa onartzeko, beti ere Nafarroako Gobernuko Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuak eskaera hori onartzen badu, eta, onartuko ez balu, atzera egitea.

5.- EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERA.-LURZATIEN SALMENTA

Idazkariak jakinarazi du Udalaren ekonomía- eta finantza-egoera kezkarria dela; kreditu-kontu batean 292.307,69 euroko kredituak dituela Udalak, baina dirurik ez dagoenez gero eta gehiago erabiltzen direla fondo horiek; adibidez 2009an 2008an baino interes gehiago ordaintze ari dira, nahiz eta interesen tipoak jaitsi diren.

2008an 12.669,89 euroko interesak ordaindu zirela, 14.087,10 € capital-amortizaziotan eta 2.009an 17.164,33 € ordaindu beharko direla interesetan eta 19.359,28 € capital-amortizazioan.

Adibide bat jartze aldera urriaren 6ko egoera honakoa zela:

Saldo erabilgarria: 77.243,99 €, onartutako saldoa 292.307,69 €, benetako saldo negatiboa, 215.063,70 €.

Hilabete bukaerarako aurreikusita dauden ordainketak: Construcciones Leache 55.000, Lurra Lan 28.000, mailegu-amortizazioa ,14.300; hori guztia hilabetean sortzen diren gastu orokorrak kontuan hartu gabe; beraz edo mendia saltzen da edo Mendi Lan enpresari beranduago ordaindu behar zaio, baina hori ez da batere komenigarria; hortaz kreditu berria hartuko beharko da eta horrek aterabiderik gabeko bidera garamatza.

Uste duela Udalak egoerari bukaera eman behar diola Kanaleburua eta Larrañetako lur-zatiak salduz, Udalak horien urbanizazioan diru asko sartu baitu eta modu horretan kreditu guztia ordaindu eta egoera berriari aurre egiteko aukera izango luke, nahiz eta kreditu berriak hartu behar, baina orain ordaintzen dituen 36.000 euroko kredituak baino gutxiago ordainduz.

Udala jakinaren gainean gelditu da.

6.- L.A.P.ren ALEGAZIOAK

Alkateak Pirinio mailan egin diren alegazioen edukiaren gaineko informazioa eman du. Epea gaur bukatzen denez alkate-ebazpena egiteko asmoa zeukala eta gaurko bilkuran berrestea, baina irakurri ondoren iruditu zaiola ez dutela bat egiten Udalak onartu eta aurkeztu zituenekin eta, hortaz, gaia kendu egin da zerrendatik.

7.- ZARAITZU ETA AEZKOAKO BATZARREK PIRINIOAN BIOMASA-PLANTA JARTZEKO PROPOSAMENARI ATXEKITZEA

Udalak erabaki du aho batez:

Lehenengo.- Eskualdeko oihan ustiakuntzetatik sortutako biomasa rehabilita energia-planta jartzeko Aezkoa eta Zaraitzuko Batzarrek sustatzen ari diren proiektuarekiko interesa adieraztea.

Bigarren.- Adieraztea Udala ados dagoela bereak diren mendiak kontuan hartzeko behin betiko proiektua prestatu baino lehen egin behar diren ikerketa teknikoetan.

8.- ENDESA-NUKFaren ARTEKO HITZARMENAREN ATXIKIPENA HERRI-JABARIKO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK %1,5 TASA KUDEATZEKO

Udalak erabaki du aho batez (egokia bada).

1.- ENDESA eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean sinatutako hitzarmenarekin bat egitea, herri-jabariko aprobetxamendu bereziengatik %1,5 tasa kudeatzeako.

2.- Aipatutako tasaren ordainketa honako banku kontuan helbideratzea:

3008 0058 170702313826

3.- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari erabaki honen berri ematea.

9.- “IDAZKARIAREN ETXEBIZITZA” DEITUTAKOAREN ALOKAIRUA

Alkateak jakinarazi du Idazkariaren pisua Aritzeta Dufur de Ynchausti jaunari alokatu ziola 2009ko irailaren 1etik 30a arte eta 300 € ordaindu zituela eta osoko bilkuraren berrespena eskatzen duela

Udalak erabaki du aho batez alkateak egindakoa berrestea.

Modu berean Udalak erabaki du aho batez alkateari ahalmena ematea, Hirigintza taldeari aldeztu aurretik kontsulta egin ondoren, idazkariaren pisua alokatzeko baldintza plegua presta dezan eta hori adjudikatzeko bermoa ezar dezan.

10.- AURIZKO UDALERRIKO ARMAZOI ETA BERTZELAKOETAKO KANPO PUBLIZITATEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Idazkariak jakinarazi du jendaurrean egon den bitartean ez dela alegaziorik aurkeztu.

Udalak erabaki du aho batez Aurizko udalerriko armazoi eta bertzelakoetako kanpo publizitatea arautzen duen udal ordenantza behin betiko onestea. Hona hemen:

UDALERRIKO ARMAZOI ETA BERTZELAKOETAKO KANPO PUBLIZITATEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

1.- Xedea.

Eremu publikotik agerian diren publizitateko instalazioek bete beharreko baldintzak ezartzea du xede kanpo publizitatea arautzen duen ordenantzak, horrelako elementu ugariak, batez ere

tamaina handiko kartelek, paisaian duten eragin larria galaraztearren. Orobat, diziplina eta udal lizentzia eskuratzeko jarraitu beharreko prozedura.

Publizitateko karteldegi edo hesizat hartuko dira hesi geometriko batez osaturiko instalazioak, beren baitan neurri normalizatuko elementu lauak dituztenak, material iraunkorrez eginak eta estetikoki egokiak, bertan publizitateko kartelak finkatzeko balio dutenak.

Publizitatekat hartzen da jendearen artean jarduera politiko, sindikal, profesional, kultural, kirol arloko edo ekonomikoren bat edo kontsumorako produktu edo zerbitzuren bat ezagutarazteko egiten den guztia.

2.-Kokalekua.

Udalaren lizentziak zehaztutako tokian ezarriko dira publizitateko elementu lauak edo hesiak; honako leku hauetan, hain zuzen:

a) Orubeen barrenean, haietan eraiki ahal izan edo ez.

b) Eraikitzen edo zaharberitzen ari diren eraikinetan.

c) Eraikinen babes-hesietan edo aldarmioetan, eraispen kasuan.

d) Mehelinetan, eraikuntza intentsiboko bi finka mugakideren kasuan, ez bazaie fatxada nagusiaren tratamendua ematen.

e) Erabilera publikoko hiri-lurzorua denean, Udalak erraten duen tokian.

f) Lurzoru urbanizagarrian eta urbanizaezinean.

g) Bide sarearen inguruan.

Eraikuntzari modu iraunkorrean lotutako guneak ixteko fatxada eta hormetan, bertan egiten diren industria jarduerak, merkataritzakoak edo zerbitzuetakoak aurkitzeko lagungarri diren errotuluak instalazioa baino ez da baimenduko.

3.-Debekuak.

Ez da baimenik emanen kasu eta toki hauetan publizitateko hesi edo errotuluak paratzeko:

- a) *Parke publiko baten sistema orokorrean edo lokalean.*
- b) *Bereziki babestutako lurzoruan, bertan ematen diren zerbitzuen antolaketari lotutako publizitatea bakarrik ezartzen ahalko da.*
- c) *"Elementu babestuak" izenez bereizitako hiriko guneeetan.*
- d) *Fatxada nagusiaren modu berean tratatzen diren eraikinen mehelinetan.*
- e) *Fatxadetan, horman pintatutako publizitatea egiten ahalko da, eraikinaren barreneko jarduera baino ez bada iragartzen.*
- f) *Erabilera publikoko eremuetan, ohiko iragaitza edo trafikoa zaildu edo galarazten denean edo bertze batzuei kalte egiten zaienean edo gogaitzen direnean, nahiz erabilera publikoko lorategiak, balio historiko artistikoko multzo edo eraikinak edo paisaia interesgarrien ikuspegiak galarazten direnean.*
- g) *Gutziz debekatua dago publizitatea eta, oro har, kartelak edo pintaketak, Udalak alde aurretik baimendu ez baditu.*
- h) *Beti ere, debekatua dago publizitateko hesi alokatuak paratzea udalerrri guztian, hau da bertze batzuen iragarkiak paratzeko errentan hartzen direnak.*

Debeku horietatik kanpo da lur horietako hiri altzarrietan ezarritako publizitatea, baita Udalak erabilera publikoko eremuetan ezartzen dituen hesiak ere, Udalaren informazioa edo argibideak, edo gizarte eta kultura arlokoak eta abar emateko balio dutenak.

4.-Hesi eta errotuluen formatua eta ezaugarriak.

Publizitateko hesi eta errotuluen euskarriek, haien elementuek eta eusteko egiturek, eta haien itxura orokorrak, behar adina segurtasun eta kalitate baldintza bete beharko dituzte, apaingarri publiko izateaz gain. Euskarriak hesiaren egonkortasuna bermatu beharko du, baita baldintza atmosferiko txarretan ere.

5.-Udalaren lizentzia.

Beharrezkoa da alde aurretik Udalaren lizentzia eskuratzea publizitateko kartel edo hesiak instalatu nahi badira, ordenantza honetan ezarritako baldintzak eta prozedura kontuan hartuz, eta

titularrak beharturik daude ordenantza honen eranskinean ezarritako eskubide eta tasak ordaintzera.

Eskaeretan kokaera zehaztu beharko da, tokiaren planoak, forma eta neurriak, ezaugarriak eta publizitatearen edukia aurkeztuta.

6.-Eskatzailearen betebeharrak.

Udalaren lizentziaz gain, publizitatearen eskatzaileak edo sustatzaileak gainerako baimenen jabe izan beharko du.

Kartela ezin hobe eduki beharko du; bertzenaz, Aurizko Udalak kentzen ahalko du eta sortutako gastuak kobratuko ditu; gainera, kostu horien adinako zehapena ezarriko dio.

7.-Zehapen prozedura.

Udal lizentziarik izan gabe edo horretarako behar diren baldintzak edo ordenantza honetako aginduak bete gabe egiten den publizitateak edo instalazioak berarekin ekarriko du zehapen espedienteari hasiera ematea, kontuan hartuz egitate hori hirigintza arloko arau-haustea dela.

TARIFEN ERANSKINA

Aurizko Udalak urteko aurrekontuetan ezartzen duen tasa ordainduko da; 2007ko ekitaldirako 20 eurokoa izanen da jabetza partikularraren gainean ezarritako kartelaren m² bakoitzeko.

Eremu publikoan edo Udalaren eremu publikoa osatzen duten bertze elementuetan ezarriz gero, tasa 40 eurokoa izanen da kartelaren m² bakoitzeko.

Ez dute Udalaren tasarik ordainduko 1,50 m²-tik beheitiko kartelek, nonahi kokatuta daudela ere. Orobat, tasa hau ordaintzetik salbuetsita daude ibarreko kontzeju, mankomunitate eta partzuergoak, haien partaiteetako bat Udala bada, eta Nafarroako Gobernua.

Honen gainean Aurizko Udalak bertze erabakirik hartu ezean, diru kopuru horiek urtero eguneratuko dira, organo eskudun ofizialak Nafarroarako onesten duen KPIren arabera.

11- .- EZKONDU GABEKO BIKOTE EGONKORREN AURIZKO UDALAREN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Idazkariak jakinarazi du jendaurrean egon den bitartean ez dela alegaziorik aurkeztu.

Udalak erabaki du aho batez Ezkondu gabeko bikote egonkorren Aurizko Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza behin betiko onestea. Hona hemen:

**EZKONDU GABEKO BIKOTE EGONKORREN AURIZKO UDALAREN ERREGISTROAREN
ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN
DITUEN ORDENANTZA**

1. artikulua. Ezkondu gabeko bikote egonkorren Aurizko Udaleko erregistroak administrazio izaera du eta bertan ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzeak, baita haien iraungitzea ere, inskribatzen ahal dira ordenantza honetan ezartzen den eran eta baldintzetan.

2. artikulua. Bikoteek, sexua kontuan izan gabe, erregistroan inskribatzeko eskatzen ahal dute, baldin eta haien adostasun libre eta osoarekin ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatu badute.

Gutienez, elkartutako kide batek egon beharko du Aurizko Udalean erroldaturik, bertan bizi ohi delako.

Halaber, bi kideek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ez daudela ezkonduak ezta inskribatuak ere ezkondu gabeko bikoteen bertze erregistro batean.

3. artikulua. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioa egiteko, bi lagunek batera agertu beharko dute erregistroaz arduratzen den funtzionarioaren aurrera, haien artean ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzen dutela deklaratzeko.

Ez da inskripziorik eginen bikoteko bat burujabetu gabeko adingabea bada, edo lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaide badira, nahiz alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaide badira.

Bikoteko batek akats edo anomalia psikikorik badu, orduan ere ez da inskripziorik eginen.

Halakoetan, medikuaren irizpena beharko du, ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzeko gaitasuna aitortzen diona.

Era berean, inskripzioa ukatuko da bikoteko bat ezkondua baldin bada edo ezkontzeko gaitasun gabea deklaratu bada.

4. artikulua. Lehenbiziko idazpena egitean, bikoteko kideek nahi dituzten argitasun guztiak agertarazten ahalko dituzte beren elkartzeari buruz.

Hitzez hitz idazten ahalko dira elkartutako kideen giza eta ondare harremanak arautzen dituzten hitzarmenak.

Aurreko lerroaldean aipatutako edukiak geroago ere inskribatzen ahalko dira, bikoteko bi kideak agertuta.

Nolanahi ere, elkartzea burutu edo iraungitzeko oharpenak egiteko, aski izanen da kide bakar batek hala eskatzea.

5. artikulua. Erregistroa Udalaren Idazkaritza orokorrean egonen da.

6. artikulua. Aitzineko artikuluetan aipatzen diren inskripzioak erregistratzeko, Liburu Orokorra erabiliko da.

Liburua orri mugigarri, zenbatu eta zigilatuez osatua egonen da, eta irekitzeko eta ixteko eginbideak paratuko dira hasieran eta bukaeran.

7. artikulua. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioa izanen da bere oinarrizko inskripzioa, eta haren bazterrean jarriko dira geroago Liburu Orokorrean elkartze horri buruz egiten diren gainerako idazpen guztiak.

8. artikulua. Erregistroan Liburu Lagungarri bat ere izanen da, inskribatuen deituren arabera ordenaturik, eta bertan adieraziko da Liburu Orokorreko zein orrialdetan dauden inskribaturiko bikoteekin zerikusia duten idazpenak.

9. artikulua. Erregistroan inskribatutakoen intimitatea, norbanakoarena nahiz familiarena, babesteko ez zaio publizitaterik emanen idazpenen edukiari, salbu eta Erregistroaren arduradunak egiten dituen egiaztagiria, bikoteko edozein kidek, epaileek edo auzitegiek hala eskatu ondotik.

10. artikulua. Egiten diren inskripzioak eta luzatzen diren ziurtagiriak doakoak izanen dira.

11. artikulua. Bikote egonkorren udal erregistroan inskribatzen diren ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartze guztiek ezkontza bidezko elkartzeen tratamendu bera izanen dute Aurizko Udalean.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Ordenantza hau berrikusiko da, legeetan aldaketarik bada gai honen inguruan.

I. ERANSKINA

Aurizko Herriko Etxean, udal erroldaren bulegoan

..... egunean, honako hauek agertu gara:

Izena:, jaioterrria:, helbidea (erroldakoa):, adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitu) NAN zenbakia:

Izena:, jaioterrria:, helbidea (erroldakoa):, adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitu) NAN zenbakia:

Eta adierazten dugu:

"Ezkondutako bikote egonkorren" Udal honen erregistroan inskriba gaitzatela nahi dugula, horri buruzko ordenantzaren arabera, eta horretarako,

Adierazten dugu:

Lehenbizikoa.-Aipatu ordenantzan aurreikusitako bizikidetasuna dela eta, gure helbidea honako hau izanen dela: (oroitarazi behar zaio jaun/andreari TAOLaren 15. artikuluari jarraikiz, erroldatu beharra duela ohiko bizilekuko udalerrian).

Bigarrena.-Ez gaudela gu biok ezkontzaren bidez lotuak, ez eta gutako inor bertze inorekin ere.

Hirugarrena.-Gure artean ez dagoela lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaidetasunik, ezta alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaidetasunik ere.

Laugarrena.-Gutako inork ez duela akats edo anomalia psikikorik, ezta ezkontzeko inolako ezgaitasun aitorturik ere.

Borzgarrena.-Ez dugula nahi/nahi dugula Erregistroan jasotzea gure arteko giza nahiz ondare mailako harremanen gaineko hitzarmenak.

Seigarrena.-Baimena ematen dugula Aurizko Udal Erroldan datu hauek egiaztatzeko.

Eta zin egiten dugu gutako inor ez dagoela inskribatua ez Aurizko erregistroan, ez maila eta xede bereko inongo herritako erregistroan ere.

Horiek horrela,

Ezkondu gabeko bikote egonkorren Aurizko Udaleko Erregistroan inskribatu gaitzatela eskatzen dugu.

Sinatua: Sinatua:

II.ERANSKINA

Aurizko Herriko Etxean, egunean, honako hauek agertu gara:

Izena:; NAN zenbakia:, eta

Izena:; NAN zenbakia:

Eta Ezkondu gabeko bikote egonkorren Udal Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantzan zehaztutakoarekin bat, adierazten dugu asmoa dugula gure arteko bikote egonkorra bukatutzat edo iraungitzat jotzeko, izan ere horrelaxe inskribatua dago aipatu Udal Erregistroan.

Horregatik guztiagatik, eskatzen dugu bukatutzat edo iraungitzat jo dadila aipatutako elkartzearen inskripzioa.

12.- AURIZKO POLIZIA ADMINISTRATIBOAREN ARLOKO ZEHAPEN PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Idazkariak jakinarazi du jendaurrean egon den bitartean ez dela alegaziorik aurkeztu.

Udalak erabaki du aho batez Aurizko polizia administratiboaren arloko zehapen prozedura arautzen duen ordenantza behin betiko onestea. Hona hemen:

POLIZIA ADMINISTRATIBOAREN ARLOKO ZEHAPEN PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea.

Aurizko Udaleko sustapenaren eta polizia administratiboaren gaineko udal ordenantzen eta bandoen aurkako arau-hausteetan ezarritako prozedurak, zehapen ahalmenaren ondoriozkoak, arautzea du xede ordenantza honek, prozedura espresik eta berariazkorik ez badute.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Udal ordenantza hau zehapen prozedura berariazkorik ez duten udal ordenantza guztietan aplikatuko da.

Orobat izanen da aplikatzekoa Auritzen zehapen araubide berariazkorik ez duten ordenantzetan edo ordenantza honen edukiarekin bateragarria den araubidea duten ordenantzetan.

3. artikulua. Arau-haustek.

Aipatu udal ordenantzetan zehaztutako jokabide guztiak arau-hauste arin, larri edo oso larriak izanen dira.

4. artikulua. Zehapenak.

Honela zehatuko dira polizia administratiboaren gaineko ordenantzen aurkako arau-haustek:

-Arinak, 399,99 euro bitarteko isunarekin.

-Larriak, 1199,99 euro bitarteko isunarekin.

-Oso larriak, 3.000 euro bitarteko isunarekin.

Auritzen zehapen araubide berariazkorik ez duten ordenantzen aurkako edo ordenantza honen edukiarekin bateragarria den araubidea duten ordenantzen aurkako zehapenek, artikulua honetan zehazten diren kopuruak izanen dituzte.

Orobat, jarduera aldi baterako edo betiko bertan behera uzten ahal da nahiz baimena aldi baterako edo betiko kendu, baita hainbat ordenantzatan zehaztutako neurriak hartu ere, ordenantza honen 2. artikuluan jaso bezala.

5. artikulua. Zehapenen graduazioa.

1.-Zehapenak ezartzeko, isunen zenbatekoa graduatzerakoan, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Egindako arau-hausteez gizartean zer eragin eta kalte duten.

b) Arau-haustea noraino den nahita egina.

c) Arau-hausteez errepikatu diren edo haietan berrerori ote den.

d) Lortu den onuraren zenbatekoa.

2.-Aurretik, polizia administratiboaren arloko arau-hauste larriago bat edo larritasun bereko edo txikiagoko bi egiteagatik, erantzuleari zehapen irmoa ezarri bazaio bide administratiboan eta zehapena preskribatutzat jotzeko epea iragan ez bada, arau-haustea errepikatutzat hartuko da.

3.-Aurretik, tankera bereko arau-hauste bat edo gehiago egiteagatik, erantzuleari zehapen irmoa ezarri bazaio bide administratiboan eta zehapena preskribatutzat jotzeko epea iragan ez bada, arau-haustea berriro egindakotzat hartuko da.

4.-Ordenantza honek aurreikusitako edozein zehapen ezartzeagatik ez da erantzukizun zibila baztertzeko, ezta zehatuak kalte-galerengatik ordaindu beharko lukeena ere.

6. artikulua. Preskripzioa.

Arau-hauste arinek 6 hilabeteren buruan preskribatzen dute, larriek urtebetean eta oso larriek bi urteren buruan. Arau-hauste arinengatik zehapenek urtebetean preskribatzen dute, larriek bi urteren buruan eta oso larriek hiru urteren buruan, irmo bihurtzen direnetik hasita.

7. artikulua. Behin-behineko neurriak.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 72 eta 136. artikuluetan agindutakoari jarraituz, zehapen prozedura hasten ahal duen organo eskudunak edozein unetan hartzen ahal ditu beharrezko behin-behineko neurriak ebazpena eraginkorra izan dadin, prozedura behar bezala buka dadin eta interes orokorrak defenda daitezken; orobat, arau-haustearen ondorioak galarazteko behar direnak eta, betiere, legezkotasuna betetzen dela bermatzeko.

Behin-behineko neurri horiek aiseago har daitezken, agintaritzako agenteek organo eskudunaren esku uzten ahal dituzte arau-haustea aldean daramatzan ondasunak edo fidantza, horrek helbide ezagunik ez badu udalerrian.

8. artikulua. Zehapena murriztea borondatez ordainduta.

Isuna %50 merkeago ordaintzen ahal da, zehapen prozedura ireki dela jakinarazi ondoko hogeita hamar egun natural iragan aitzin pagatzen bada eta inpugnazio orori uko egiten zaiola dioen idazkia aurkezten bada.

Deskontuz ordainduz gero, prozedura bukatutzat joko da, ebazpen espresik eman beharrik gabe.

9. artikulua. Zehapen prozedura hastea.

Beti, Udaleko organo eskudunak hasiko du prozedura, ofizioz edo salaketa bidez egindako jarduketan ondorioz.

Espedientea hasten duen ebazpenean honako hauek agertuko dira, gutxienez ere:

a) Ustez erantzuleak direnen identifikazioa.

b) Prozedura irekitzera eraman duten gertaerak, laburki azalduak, eta izan ditzaketan kalifikazioa eta zehapenak, instrukziotik atera daitekeena galarazi gabe.

c) Espedientearen instruktorea, errefusatzeko araubidea espres adierazita.

d) Zein den espedientea ebazteko organo eskuduna eta zein arauk ematen dion eskumen hori, ustezko erantzuleak erantzukizuna bere borondatez aitortzeko duen aukera adierazita, ordenantza honen 8. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

e) Organo eskudunak, edo instruktoreak, prozedura hasteko hartzen ahal dituen behin-behineko neurriak.

f) Alegazioak egiteko eskubidea, baita frogabidea proposatzekoa eta hartarako epeak ere.

g) Aurreikusitako epean, prozedura hasieraren edukiari buruz alegaziorik egiten ez bada, hasiera hori ebazpen proposamentzat hartzen ahal dela ohartaraziko zaio ustezko erantzuleari jakinarazpenean, eta abuztuaren 4ko 1389/1993 Errege Dekretuaren 18 eta 19. artikuluetan jasotako ondorioak izanen dituela.

10. artikulua. Frogabidea.

Arau-haustea eratzen duten gertaerak eta izan daitezkeen erantzukizunak zehazteko egokitut jotzen diren froga guztiak eginen dira ofizioz, edo interesdunak proposatuta onartuko dira.

Gertaerekin duten lotura dela eta, azken ebazpena ustezko erantzulearen aldera eraman ezin dutenak bidegabeak direla deklaritzen ahal da.

11. artikulua. Ebazteko proposamena eta entzunaldia.

Frogabidea bukaturik, espedientearen inktoreak ebazpen proposamena eginen du; hartan, gertaerak arrazoituta agertuko dira, zein ematen diren frogatutzat eta zein kalifikazio juridiko duten zehaztuko da, zein arau-hauste dagokien argituko da, baita nor diren erantzuleak ere, eta proposatzen den zehapena adieraziko da; bertzenaz, arau-hauste edo erantzukizunik ez bada, espediente artxibatze proposatuko da.

Interesdunei ebazpen proposamena jakinaraziko zaie, eta prozedura ikusgai dutela adieraziko. Prozeduran baliatutako dokumentuen zerrenda erantsiko zaio jakinarazpenari, interesdunek egokitzat jotzen dituztenen kopia eskuratu dezaten, eta hamabortz eguneko epea emanen zaie alegazioak egiteko.

Entzunaldirik gabe utz daiteke, interesdunak aurkeztutako gertaera, alegazio eta frogak baino ez daudenean prozeduran, edo horiek bakarrik hartzen badira kontuan.

12. artikulua. Ebazpena emateko epea.

Prozedura hasi zenetik urtebete iragan eta ez bada zehatzen duen ebazpenik eman, hura iraungi eginen da eta jarduketak artxibatuko ditu ebazpena emateko organo eskudunak, edozein interesdunek eskatuta edo ofizioz.

Zigor jurisdikzioak gertaeren berri izanda prozedura bertan behera uzten bada, eten eginen da iraungitzeko epea, eta berriro abiatuko da urtebetea egiteko behar duen denbora arte, irmo bihurtu eta ebazpen judiziala organo eskudunari jakinarazi ondoren.

13. artikulua. Ebazpena.

Organo eskudunak ebazpena emanen du; arrazoituta egon beharko du eta espedientearen planteatutako gorabehera guztiak ebatziko ditu.

Ebazpenak ez du prozeduran aztertu ez den gertaerarik onartuko, zein den ere haien balorazio juridikoa.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

14. artikulua. Ebazpenaren ondorioak.

Bide administratiboa bukatzen duten ebazpenak betearazleak izanen dira berehala.

Zehapena hilabetean ordaindu beharko da, gehienez ere, bide administratiboan irmo bihurtu eta biharamunetik aitzina.

15. artikulua. Ordaina ematea eta kalte ordainketa.

Zehatutako jokabideek kalte edo galerarik eragin badiote Aurizko Udalari, honako hau deklaritzen ahal da prozeduraren ebazpenean:

a) Arau-hausleari eskatzea arau-haustearen ondoriozko egoera lehengora itzultzeko.

b) Sortutako kalte eta galerak ordaintzea, haien zenbatekoa prozeduran zehazten denean.

16. artikulua. Prozedura erraztua.

Arintzat jotako arau-hausteen kasuan zehapen ahalmena erabiltzeko, ondoko artikuluan araututako prozedura erraztua tramitatuko da.

17. artikulua. Tramitazioa.

1. Agintaritzako agenteen akta edo salaketa ustezko erantzuleari jakinaraziko zaio, eta ohartaraziko, hamar eguneko epean alegatzen ahal duela komenigarritzat jotzen duena, baita egokiak iruditzen zaizkion frogak proposatu ere.

2. Interesdunaren alegazioak aztertu eta hark eskatutako frogak eginik, nahiz zehapena ezartzeko organo eskudunaren ustez beharrezkotzat jotzen direnak, bidezko ebazpena emanen da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe gelditzen dira udal ordenantza hau ukatu edo haren aurka diren sustapenaren eta polizia administratiboaren gaineko udal ordenantza guztietako artikulua.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau ez zaie aplikatuko hark indarra hartu aurretik hasitako zehapen prozedurei, aurreko araudiari jarraituz bideratuko baitira.

AZKEN XEDAPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ordenantza honek ez du sortuko ondorio juridikorik harik eta testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Estatuko Administrazioak edo Foru Komunitateko Administrazioak toki erakundeei egintzak edo erabakiak deuseztatzeko errekerimenduak egiteko ahalmena erabiltzeko epea iragan arte.

Udalak erabaki du aho batez eguneko gai zerrendan ez dagoen gai bat urgentziazkoa deklaratzeko eta hartaz mintzatzeko, hona hemen:

IZASKUN ETULAIN AK. MEDIKUAREN PISUAREN ERRENTAMENDUAREN KONTRATUA LUZATZEKO EGIN DUEN ESKAERA

Ikusirik Izaskun Etulain Ciganda ak. eskatu duela gaur egun duen errentamenduaren kontratua urte bete luzatzea, Udalak erabaki du aho batez 2010eko azaroaren 1a arte luzatzea.

13.- BESTERIK

Lurzatien baterakuntza

Alkateak jakinarazi du irailaren 14an hasi zirela lurzatien baterakuntzaren lanak eta ireki da Zakarrola eta Santa Kruzeko bidea Garraaldako mugaraino eta baita Altxetako bitarteko bidea, Aretxekosaro eta Saroberri artean, modu horretan altxonbidea berreskuratuz.

Udala jakinaren gainean gelditu da

Slow food

Alkateak jakinarazi du irailaren 26an Slow Food jarduera egin zela eskualdeko Udalekin batera, bertako produktu eta turismoa sustatzeko eta sekulako arrakasta izan zuela.

Abuztuko Feria

Alkateak jakinarazi du abuztuaren 15ean Eskulangintza Azoka egin zela, jende asko hurbildu zela eta salmentak arrakastatsuak izan zirela.

Udala jakinaren gainean gelditu da

Iraileko Feria-Artzai Eguna

Alkateak jakinarazi du iraileko Ferian azienda asko izan zela eta baita jende asko ere, batez ere egun horretan Artzai Eguna ospatu zelako, nahiz eta eguraldia txarra izan, baina ekitaldiak oso ongi antolatuta zeuden eta arrakasta handia izan zuten.

Udala jakinaren gainean gelditu da

Nafarroako Diputatu eta Senatariekin izandako bilerak

Alkateak jakinarazi du Nafarroako Diputatu eta Senatari guztiekin bildu dela Estatuko aurrekontu orokorretan Aurizko harresiak berreskuratzeko dirua lortzeko; proposamena ongi hartu zutela baina ikusi behar dela gero gauzatzen den.

Udala jakinaren gainean gelditu da

Aurizko harresien lanak

Alkateak jakinarazi du Aurizko harresiak berreskuratzeko lanak bukatu egin direla eta Tokiko Inbertsioentzako Estatuko Fondoan dirulaguntza jaso dela.

Udala jakinaren gainean gelditu da

Ugaldearen lanak

Alkateak jakinarazi du ugaldean eta haren inguruan egiten ari diren lanak Mendi Lan enpresa egiten ari dela eta hilabete honen bukaerarako bukatzea espero duela.

Udala jakinaren gainean gelditu da

Mikrodestino turistikoa

Alkateak jakinarazi du turismoan diharduten entitate pribatuei Kinto-Orreaga mikrodestino turistikoa aukeztu zaiela eta horretan sartzen direla Udal hauek: Esteribar, Erroibar, Auritz Burguete, Orreaga Roncesvalles eta Luzaide-Valcarlos eta bilera egin behar dela Turismo Zuzendari Orokorrearekin ikerketa aurkezteko.

Udala jakinaren gainean gelditu da

Udaletxeko bulegoetan izandako lapurketa

Alkateak jakinarazi du irailaren 11n lapurketa izan zela udaletxeko bulegoetan eta Aurizko Udalaren eta Orreagako Udalaren giltzak eta zigiluak gordetzen diren kutxa lapurtu zutela eta salaketa jarri zela eta irailaren 15ean honako ebazpena eman zuela:

“Ikusirik 2009ko irailaren 11an udalaren zigilua gordetzen zuen kutxatxoa lapurtu dutela

EBATZI DUT:

-2009ko irailaren 11tik aitzina egindako dokumentu oro, udal zigilua duena deuseztatzea.

-Udal zigilu berria egitea, aurrekoaren berdina ez dena, baina herriko armaría duena.”

Udala jakinaren gainean gelditu da

Hegazti migrarien behatokia

Alkateak jakinarazi du irailaren 12 eta 19ren artean Lindus-Trona pasabidean hegazti migrarien behatokia egin zela, emaitzak oso onak izan zirela eta memoriaren zain daudela. Modu berean Auritzen hegazti migrarien behatokia paratzeko egin diren gestioak jakinarazi ditu.

Udala jakinaren gainean gelditu da

Ordezkapenak egiteko zerrenda osatzeko deialdia

Alkateak jakinarazi du Erroibar, Auritz eta Orreagako udalek administrari laguntzaileen bajak, oporrak eta lan asko dagoenean laguntza izateko ordezkarien zerrenda osatu behar dutela.

Udala jakinaren gainean gelditu da

Oihan aprobetxamenduaren salmenta

Alkateak jakinarazi du Genaro Cantero delako zur-enpresarekin adostu duela Antsobiko oihan aprobetxamendua egingo dutela 25.000 €-ren truke eta aldez aurretik Fermín Izcorekin (Udalaren teknikari aholkularia) eta M^a Eugenia Hernandorekin (Nafarroako Gobernuako Ingeniaria) mintzatu dela aholkua jasotzeko.

Udala jakinaren gainean gelditu da eta alkateak egin duena onetsi du.

Eta horrenbestez, bilera amaitu da eta akta hauxe egin dut, alkatearen oniritziarekin, bertan aztertu eta erabaki direnak idatziz jasota gera daitezen.